

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren
Osoko Bilkuraren 2024ko martxoaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 749980.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/749980>).

Lehenengoa. Onuradunak

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzaren onuradunak honakoak izango dira: pertsona fisikak edo erkidegoak, bizitegitarako erabilera duten eraikinen jabeak edo gozamendunak, eraikinek berrogeita hamar urtetik gora badituzte edo katalogazio edo babes motaren bat badute, eta eraikinen ikuskapen teknikoa egin ostean, dirulaguntzen eskaera egiten dutenak.

Dirulaguntza emateko eskatzailea Zuiako udalerrian erroldatuta egon behar da, deialdiaren urteko urtarilaren 1ean.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauen xedea da Zuiako udalerriko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko txostenaren kostua zati batean ordaintzeko Zuiako Udalak ematen dituen dirulaguntzen prozedura arautzea eta sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 14an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntza egindako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 50era artekoa izango da; familia bakarreko etxeen kasuan, gehienez ere 200,00 eurokoa, eta jabe erkidegoen kasuan, gehienez ere, 500,00 eurokoa.

Genero indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten pertsonentzat ehuneko 60ra artekoa izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 220,00 eurokoa.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Dirulaguntzen aurrekontu aurreikuspena 2024ko ekitaldirako 1.500,00 eurokoa izango da, 2024ko abenduaren 30erako, eta ez da luzatzeko aukerarik egongo.

Dokumentazioa udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (izapideak/dirulaguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2024ko martxoaren 18a

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA